Euzkotar umien aldez

UME-SALATIA

(Amaya)

"Ara emen nere aurka ekaſi duten bigarren salakeria: Gaztiak usteltzen ditualako, Lateŕien Jaungoikoetan zinisten ez dualako, eta beren ordez txeŕen izenpian beste jaungoiki batzuek ipintzen ditualako, Sokrates eŕudun da."

Platon "Alkaſ izketak".

Sei urte zitualarik ikastetxera asi zan, eta adiraltzen, eta ikasten, eta bere ikasbideai auŕia artzen alegindu biaŕian, au ere bestiak zelatatzen arduratzen zan, gero Irakaslemiari salatzekotan: "Anderaño, Jonetxok irolerakuan lorategi ertzegitik juan ¿bai? ta lore bat oinpetu ta puskatu du. Anderaño, atzo zuk etxera idaztirik ez eramateko esan zenduan, baña Katariñe'k Kistaſ-ikastia eraman egin zuan. Anderaño, Kepatxuk ituŕia zabalik laga du ta ur guztia kanpora dijua, ta abaſ.

Oitura ori oso itxuzia zala-ta, ume salatia ludiko Ikastetxe guztietan gaizki ikusia izaten dala-ta bere lagunak salatzeari lagatzeko askotan Irakaslemiak ixilian esan aŕen, etzan zuzentzen-da, egun artan ikasle danen auŕian esan zion: —Jonetxu lorategira geyegi uŕeratu dala ikusi ba dezu, esan egin biaſ ziozun, lorerik puskatu ez zezan, utz-egitea gero neuri salatzekotan nai izan gabe. Katariñe beŕiz nezkatxo esangiña dezu ta nere agindua bete zuan, etxera zeraman ikusi ziñogun Kistaſ-ikastia ikastolakua etzan etxekua baizik, eta ezjakiñian ekaŕia. Ta Kepatxu ituŕia zabalik lagatzen ikustian salatzera etortzen eman dezun astia ituŕia itxitzen eman biaſ zenduan. Oitura ori oso zitala dala ta ikastolan ez detala nik salaketarik artzen esaten dizut ume guztien auŕian eta aundia zeranian ere akatz ori baldin ba'dezu gizon zintzo guztiak zure ondotik alde egingo dute.

Baña auŕerantz etzerala onelakua izango ta bestiak salatu gabe zeure buruakin arduratuko zerala ta gaurtik auŕera lagunik ez dezula zalatuko uste detalako auxe esaten dioet besteari; ez deizutela eguiñez begiratu, jolas danetan, kezka gabe, begi onez artu zaitzatela, auŕerantzian beztiak bezelakoxe umia izango zerata. Eta batez ere ikasliori gauza bat eskatzen dizutet, ez dezayozutela deitu bere izenez baizik, ikastolan ezizenik deitzen ez detalako utzitzen, gustiok dakizuten bezela Goyeneta'taſ Imanol du bere izena.

Umiak irakaslemiaren agindua bete zuten eta norbaitek gogoratzeke "Azpotxo" deitu ba'zion ere, zintzo bezela barkazioa eskatu ta ez zion iñork jolasaldian iges-egin.

Goyeneta ez ondutzia tamala zan baña etzan ondu. Erak aldatzia izan zan egin zuana. Len bezela salatzera zuzen bera juan gabe, Irakaslemiari arpegiz-arpegi salatu gabe beronek entzuteko eran beste lagun bati esaten zion, zitalkeri utzez: "Y, Koldobika, Irakaslemiak gauŕ erakutsi digun abestia oso motza dala ziok Bernarde'k eta oŕegaitik ez duala ikasteko alegiñik egin" ta onela ixilkeriz salatu ta gañera bere laguna erre aŕixkuan sartu erazotzen zuan.

Goyeneta etzan zuzentzen-da, Irakaslemiak, bere ikastetxe maiteko umietan salaketa - zalekeria zabaltzeko bilduŕ-ikaraz, atzegabe aundiz atera egin zuan.

Goyeneta'k gizondu ta ere salaketa giñarekin jaŕaitu zuan. Beronen salaketak bide ziralarik, bere auzokide on eta eskugarbi batzuek espetxe samintasunak ikusi. ta bestiak diru-nekiak ordaindu biaſ izan zituzten.

Auzokideak ezin zuten begiz ikusi-nazka zioten ba-eta nazka ori agertzeko aldija ere eldu zan. Iñork ez zuan maistertzat euki nai ta eŕi guztian bizitzeko etxerik bilatu ez-da, iges-egin biaŕa izan zan bere eŕiŕik iñork ezagutzen ez zuan beste leku batera. Bere eŕikidiak onelaxe iritxi zuten gizon zital ura auŕetik kentzia

卐 卐 卐

Europa'ko Gudate Aundian doistaŕengana zelataritzat eskeintzera bere girña txaŕak eraman zuan. Bere bizibidiaren saria artzeko garaya eldu zan noski, ta arte bitaŕtian diru gabe egindako lanen ordain ugaria oraintxe izango zuan.

Diru ordez salatitzan sartzen dan gizonari datorkiozan ondorenguen beŕi bai dakizute ordia. Jakiñen gañian zaudete.

France'taſ gudari nagusien eskuetan laisteŕ erori zan ¡bai! ta Goyeneta'ren zoritxaŕa eŕian jakin zanian, eŕitaſ gustiak lenagoko gaizki-egiñak barkaturik, umetan salati-akatza kentzeko ainbeste alegindu zan, Irakaslemiaren bitaŕtez, bere alde lana egiten asi ziran lako, Goyeneta gixajua suizkiluz erail zutela egun batzuek bai'ziran.

¡Irakurten nazuten umetxo euzkotaŕok! Etxean naiz ikastetxietan, landan, txaidian, enparantzan, naiz txadonan naiz mendian, edozein lekutan, kistaſ ta euzkotaŕak bezela ibili zaitezte, zeuen egitien lotsik izan ez ta, zuen bizitza, beŕegiten ari gerau Abeŕi-Edestiaren puzka da-ta; salati, zelatari, ta saltzalietatik azke ikusi nai degun Abeŕiarena...

AÑITOKIETA.

Euzkerea

I

Euzkerea, basatijen elia dala esan dabenak basurde jakingiak ixan ei-diran-aŕen, ele edeŕ-ikuskaŕija dala autortu dabe, ao batez jakiŕun gustijak. Baña edeŕa dala, itxusija dala, eztau iñok ludijon ukatu "Euzkerea, euzkotaŕen elia dala". Zentzun -izpi izpeŕik be eztauken euzko-españazale baten-batzuri iñoz entzun dautsegu "Euzkerea eztala euzkotaŕen ele bakaŕa". Euroi jaramon egiŕia, gaberdiko aumtzaren estulari jaramon egiŕia lakoxia da.

Eta euzkerea euzkotaŕon ele bakaŕa dan -ezkero, bera maŕatuten biaŕtuta gagoz, euzko-odol-tanta bat geure sanetan daroyagunok. Ez da naikua euzkel-edeŕtasunak iragaŕtia; ezta naikua señai euzkel-ixenak ezaŕtia. Norberaren semiari noxian - bein laztan bat emon, bere poliŕasunak, edeŕtasunak ta jakiŕurija iragaŕi ta beste barik semia maŕe-maŕe dabela diñon gurasuak eztabe egiz eta benez semia maŕe. Semien-ezez pen-odolez goŕiŕuta il-zorijan dagon ama zaŕari, eskuba emon, dagon egoeratik atara, laztanez odol-zaurijak legortu ta osatuten eztaben semiak, ez dau amarik maŕe. Ama zaŕ zauriŕu ori, euzkerea da. Bere semia, geuk, euzkotaŕok.

II

Euzko-abeŕtzaletasun-azija ala euzkerea -azija erain biaŕ da lenago, euzko-bixijan? Uŕengo baten oŕetzaz astiro jarduntia bai liteke. Oŕaŕiño, jardun eta arazo oŕetan astija galtzeko aldijan ezkagoz, neure emakume ustez.

Abeŕtzaletasun-barik ez lei euzko-ekandurik berbiztu ta osatu; abeŕtzaletasun barik ez legijo, jagokon euzko-bixirik, Euzkadi'ri emon; abeŕtzaletasun barik ez legi Euzkadi azkatu.

Egija da, baŕiz, euzkereari zor dautsagula, euzkerea jagon dabela daukagun euzko -bixija; euzkerea ixan dala geure aurkari gustijak agirijan imiñi dautsezana geure euzko-eskubidiak; euzkerea ixan dala geure arerijuen asmo txaŕak ezertu dabezan gudari gogoŕa.

GEURE EGINBIAŔA. — Euzkerea itz -egiten dakigun gustijok, Euzkerea idatzi ta irakuŕi, Euzkerea dakigun gustijok alkaŕekin beti euzkera egingo ba'gendu, beste txori batzuk abestuko leuskiguk Abeŕtzaletasun arazuetan auŕenengo dabiltzan ainbat dira, euzkera jakin eta gazteleraz be ti, itz-egiten dabenak. Abeŕtzale sutsu buruba egin eta seme-alabai beti erderaz itz -egiten dautsen amaika guraso ba-dago. ¿Zer dikuŕ? Onazpi-bako abeŕtzaletasuna dala. Abeŕtzaletasuna ta euzkeltzaletasuna eguzkija ta argija lez alkaŕegaz ibili biaŕ diran adizkidiak dira.

Abeŕtzalia dan euzkotaŕak, ba, gauza bijok bete biaŕ dauz:

1. Gastia ixan ta euzkerarik ez dakijanak, eria ba-dauka ikasten alegindu.

2. Gurasuak diranak, nai eurak jakin, nai jakiñez, seme-alabai lenengo ta beñen euzkerea irakatsi, eria ba-dau.

Eztakigula jazo "Dictadura" aldijan jazo zana. Une batetik hestera abeŕtzaletasuna il zalakua ixan zan. Euzko-abeŕtzaletasunak euzkerearen dauko oñaŕirik sakon eta senduena.

MAŤE.

BITIK BIRA

Batasunatzaz ostera be

Bai irakuŕle, batasunatzaz ostera be. Dabilanak jakiten dauz izpaŕak eta nik be nabilalako-edo, jakiŕia gura eneuzan gauza batzuk jakin dodaz.

Eneuke gura neure lantxu onetan asko luzatzerik, labuŕ ixatia gura dot, idazki aztunak aspertuten dakije-ta.

Baña lantxu onen asijerako lenengo azalpena egin-barik be enaz geldiŕuko.

Euzko-Alderdi Jeltzaliak bere agindarijak daukaz eta guk bere alderdikide lez euren agindubak bete biaŕ-doguz. Uri-Buru -Batzaŕak, Erkikuak eta Euzkadi'kua. Gein agindubak bete biaŕian gagoz ta beteko doguz eurok diralako geure agindari bakaŕak. Beste agindaririk eztogu ezaututen.

Orainguan be, txaidietatik ziaŕ dabilen batasun zuŕumuŕu oneik itxaliŕeko bere agindubа emon dausku geure Erki-Buru -Batzaŕak eta agindu a nai ta nayez bete biaŕko dogu; betetan ezpa-dogu, ezkara ixango benetako alderdikidiak. Bere agindu bat egon da batasunatzaz ta guk eztaukagu beste egin biaŕik agindu ari biaŕ daun zabalgundia emotia baño. Ezelako bilduŕ -barik eta iñori jaramon barik Gauza bata egoki ixango ba'litxake ta bestia ondo ba 'lego albo batera itxi biaŕ doguz ta Bizkai -Buru-Batzaŕak esan daun lez, iñogazko batasunatzaz itzik entzuten ba'dogu, jaramonik bere ez, ta jaramon biaŕ ba-da, erantzun ezkagozala españaŕ alderdijekaz batuteko. Okeŕ ba-dabiltz zuzendu dadixala euren indaŕagaz ta z iñor ondatuta.

Emen daukaguzan España'ko Alderdi Katolikuak ba-dakiguz nortzubenak diran. Bateko Gandarias, besteko Artetxe, Urkixo ta Etxebaŕia. Oŕeik eurenak galduta ikusten dabezanian datoz gugana, ez uskuŕtzaletasuna jasoteko ta gitxijago abeŕtzaletasuna edo euzkotasunari bixija emoteko. Argi-argi ikusten da oŕein maŕasuna euzkotaŕenganako. Euzkotaŕ abeŕtzaliak ondo ezaututen dabez gixon oŕeik eta ezaututen eztabenentzako iŕaun bat bakaŕik egingo dogu. Gixon andi oŕeik, andijak aberatsak diralako, ¿zenbatzuk "ordenanza" edo txiñel euzkotaŕ daukez euren Banco de Bizkaya'n? ¿Banco de Bilbao'n eta Banco del Comercio'n? Dagozan gustijak ezpa-dira, geyanak bai beintzat, bata Badajoz'kua ta bestia Caceres'kua, ta olantxe dan-danak.

Ori abeŕtzaletasunaren begiŕik begiratuta, eta begiratu ezkero uskurtzaletasunarenetiŕ, ikusiko dogu zelan orain dala egun gitxi Bilbao'ko alkate edo endoriak euren asaŕia erakutsi ebenian Josu-Bijotza'ren iŕudija kenduten duazalako, euren ixen ebiŕnak ezebezala emon. Balparda Etxebaŕia'k eta Moyua'k.

¿Zegaŕik? Uskuŕtzaletasuna ta euzko -maŕasuna baño auŕerago dalako txindi-zaletasuna.

Oŕeik gustijok olan ixango dira, baña danori baño tamalgaŕijagua da geure alderdikidiak be, agindarijen agindubei jaramon-barik, españaŕ alderdijekaz batasunerako aŕtu-emonetan ibiltia.

Guk eztogu olakorik egingo, ta olan dabiltzazanak be uste dot curek bide okeŕetik zuzenaratuko dirala, eta zuzendu gura ezpa -dabe, ¡¡duazala eurekaz batian, eztogu biaŕ olako "traperorik"-eta!!

Información postal

ONDARROA

DE PESCA.—Debido a la persistencia de los malos tiempos en la mar y también por la escasez de papardo notada en la semana anterior, las embarcaciones dedicadas a la pesca de la palometa han estado inactivas, permaneciendo en casa desde el domingo dia 19 hasta el martes pasado, dia 28, con la única salvedad del viernes, en que salieron a la mar, regresando sin haber pescado nada.

TEATRO.—El domingo pasado, el Cuadro artístico de la Congregación de San Luis Gonzaga nos obsequió en el Salón Bide-Onera con una agradable velada teatral. Tarde y noche, en la primera con poca entrada y a la noche con el salón lleno, pusieron en escena la bonita obra de don Víctor Garitaonandia titulada "Aitona ta billoba" y la chispeante comedia "Bernaño'ren larrijak", de T. de Altzaga.

La interpretación, excelente, cosechando los actores grandes aplausos. En los intermedios tomó parte la banda de txistularis de la Congregación, obteniendo un éxito, y siendo agradable sorpresa su presentación al público.

El lunes, y en el salón del Batzoki, el Cuadro de éste, ante un público numeroso, nos deparó una agradable sesión nocturna, llevando a escena la representación de la graciosísima obra euzkérica "Neskazar". Los intérpretes se apuntaron un éxito más a los muchos que llevan ya cosechados en esta temporada.

NATALICIO POLITICO.—Los tradicionalistas locales han dado a luz un nuevo centro político. Es el cuarto de la serie. Primeramente, hace ya años, abrieron un local, al que denominaron Círculo Tradicionalista. Se hartaron, por lo visto, con esta denominación, o, lo que es más probable, existiendo entre los socios del Círculo Tradicionalista muchos liberales, manifiesta contradicción, pues la doctrina tradicionalista es la antitesis de la liberal, que no podían digerir la denominación señalada, acordaron retirarla, poniendo en su lugar esta otra: Centro Vasco-Español.

Después, estos mismos tradicionalistas, queriendo ensanchar el campo de sus actividades políticas, fundaron otro Centro, titulado Juventud Monárquica. Jóvenes tradicionalistas, monárquicos de Alfonso, todo un pisto.

Desplegaron tanto las alas, extendieron tanto el vuelo, que, remontándose a alturas superiores a su alcance normal, se encontraron en él con una atmósfera rara, enviciada. De pronto, que se desmorona todo el tinglado. Los jóvenes monárquicos, tradicionalistas de Alfonso, se marchitan prematuramente, mueren por falta de vida. Los otros, los vascos de las Hurdes y los españoles de Albazisketa, tampoco pueden seguir viviendo. Tienen tal concepto del ideal, que como todos es sacrificio, que entre tantos (?) no pueden reunir lo suficiente para pagar la renta de su domicilio social. Se cierra el flamante Centro Vasco-Español y algunos socios se llevan a sus casas objetos del mismo por bastantes menos pesetas de su precio.

Unos cuantos años reambulando de aquí para acá, para parar en la apertura de otro Círculo Trdicionalista. Así reza el letrero. Veremos si la práctica dice lo mismo. Y esperamos el nuevo parto del quinto Centro. Ahora que éste pueda que lleve un título más en consonancia con el sentir y deseos de los jaimistas-alfonsinos. Por ejemplo, pudieran denominarle "Frente Unico contra el Nacionalismo", o este otro, muy cierto: "Conjunción Monárquico-Republicana".

Que ello será así nos lo hace pensar cierta amigable camaradería que se nota últimamente entre líderes locales de campos tan opuestos.

ASAMBLEA DE AFILIADOS. — Se celebró el domingo pasado, con gran concurrencia, la asamblea de afiliados del Partido para estudio y aprobación del proyecto de organización regional de Bizkaya. Al mismo se presentaron varias enmiendas, que fueron aprobadas.

NATALICIO. — La esposa de nuestro compatriota Juan de Solabarrieta ha dado a luz un nuevo vástago, futuro abertzale, al que le impusieron el nombre euzkérico de Josu Azkatasuna. Zorijonak.

JOKINTXO

TAFALLA

EL TIEMPO.— Hemos atravesado un gran temporal de nieves que ha durado diez dias; las heladas también se han sucedido, y por este motivo los labradores se han visto precisados a guardar fiesta. La humedad recogida en los campos ha sido grande.

LOS CARNAVALES.—Sin notarse lo más mínimo han transcurrido en esta ciudad las fiestas del Carnaval. Ni un baile, ni una máscara.

EN EUZKO-ETXEA.—Se han visto estos días muy animados los salones de Euzko-Etxea de esta ciudad. Lo ha motivado la celebración de la junta general del Partido Nacionalista, en la que se dió lectura del nuevo reglamento del Napar y la designación de delegados por la asamblea de Iruña.

También se han visto concurridos de socios para hacer comentarios en torno a los escritos publicados en "Juventud Católica Obrera" por su director, el sacerdote don Tomás de Azkarate y Pardo, contestando al firmado por Azkenalangille en "La Voz de Nabarra", el cual se lamentaba de la campaña antinacionalista efectuada por el sacerdote indicado en una de las conferencias dadas a la terminación de las clases que dirige.

El domingo por la noche una Comisión le visitó para requerirle rectificase todo lo vertido en su periódico, por ser inexacto, contestando el sacerdote Azkarate no ser sus intenciones el perjudicar lo más mínimo al Partido Nacionalista, y que la rectificación la haría en la escuela y no por medio del periódico.

Esperamos grandes acontecimientos por estos incidentes.

CURSOS DE COCINA. — Continúan viéndose muy concurridos los cursos de cocina organizados por las emakumes de ésta.

El corresponsal.

IPUIN BA

Auntz zaŕ batek saspi antzume euki ebazan, eta maŕe ziŕubazan amak umiak maŕe dabezan lez. Baten auntza bedaŕa jaten basora juan zan eta saspi antzumoi dei-egin eta esan eutsen.

Ene semiok oin basora juan biaŕ naz eta aŕdura euki otsuagaz etxera badatoŕ ez igidi atia.

Antzumiak amari erantzun eutsoen:

Ama zuaz basora ikara-barik eztotzu sabalduko iñori aterik-eta. Auntza, nasai, nasai juan zan basora. Gerotxubago atia jo beben.

"Atia zabaldu, ene umiok, ama emen daukazube gustijontzat gozuakaz. Baña abots gaŕatza eukon eta umiok ezautu leben otsua zala. Ez, atea ezta zabaldu biaŕ zu etzara gure ama zu otsua zara, gure amak eztauko abots gaŕatzik.

Orduan otsua saloki batera juan zan eta aŕautzak eskatu lebazan abots bigaŕtu zan antzumiakana; esan eutsoen. Atia zabaldu maŕiok ama daukazube emen gozuakaz.

Baña antzumiak atepetik otsua zala ta esan eutsoen; gure ama zu otzua zara, gure jak eztaukoz baltzak zurijak tzunik otsua eŕotara juan zan ŕuten eta irugaŕenez jo eutsoen Zabaldu atia ene semetxubok Antzumiak erantzun eban, biaŕ dozuz, ama zaran ala otsuak ate zulotik ankea zurija zala ikusi lebenian etxeko atia zabaldu eutsoen. saŕtu zana etzan ama ixan bat baño. Danok ikaratu ziran. Euretariko bat, tau zan, beste bat oyan, tzian, beste bat arazan jena gabeukatz baŕuban. nan-banan danak iruntzi kaŕik lotu zan gabeukijan tzumiok, janda gero otsua ta zugatz baten azpijan azpijan lo-geldi rotxubago autz-amea etoŕi lebenian etxeko atia zabalik sabelan bixirik egongo zirala eutzan auntz txikijari ekaŕieko tik aŕtazijak, oŕatza eta ŕiŕa, ŕiŕa igidi eutson sabela eta xirik bere umetxubak.

Gero otsuari sabela aŕiz eta firuagaz josi leutsoen. otsua egaŕiŕuta ibaira juan zan eta beŕtan bere aŕijaren aztaz antzumiak amagaz etxera juan beterik eta an egin leben jolas edeŕ bat.

GOITIA'TAŔ.

U.—Idazlantxu onen egilia, tetxuba dogu. E. - I. - B.'ko dabilen gaste baten igali ikasten dabena neuŕtu daigun rik noiz uste ixango leuguban? ipuñak idazten, eta idatzi ŕiak. Goitia gastetxuba ez-eze aukeratu daikeguz.

Onen beste ikasi dagikiela ban uste, baña orain begijak kuz. Gurasuak oldoztu begije iak olako ikastolaetara bidaldu Emen argiŕalduten dogun ezta, antziñako ipuña baño. azkaŕ baten idaztijan irakuŕi Eta euzkeraz be entzun ixan jaunak euzkeralduba dalako. muŕenak umetxu oni ta bere ain lan edeŕa dagijelako. teko beste biderik eztago.—

ERRIJETATIK

MAÑARIA

Gexorik nagualako, aspalditxuban eztot ezer idatzi, baña, egunoranttan apuŕ bat oberantza eginda auŕkitzen nazalako, izpaŕ batzuk bidaltzen dodaz gauŕ.

EZKONTZAK. — Lengo asteko egubenian ezkondu ziran "Ikabaltzeta-Beazkoa„'ko Ikabaltzeta'taŕ Biŕoŕ mutila ta "Ituŕietxe„'ko Goŕi'taŕ Lone neskatila. Zorijonak.

Baña lasteŕ ezkontzen da "Artzubi„'ko Ortuoste'taŕ Miren Jasone neskatila "Landaluze„'ko bere osaba Saturnin mutilagaz. Zorijonak zueri be.

ELIZKIXUNAK. — Igandian, Josu'ren Bijotz deun eta gozuaren aintzaz, Jaunaŕtze asko ta elizkixun edeŕak egin ziran. ¡Aintza ta omena Bera'ri!

Ta Bilbao'ko zinegotzi eskertaŕak aŕturiko asmu donge-dongia atzeratuko al-dau.

EGUÑA-OSPATU. — Igaroriko egubenian ospatu eban bere jayotegunaren-urteuŕena, Baŕenetxea'taŕ Polentzi emeko txaunburu-lagun aguŕgarijak. Au dala bide zorijon-aguŕ asko artu eban Polentzi jaunak. Geuriak be artu ba jauna, ta urte askoan olantxe.

JUAN-ETOŔIJAK. — Santurtze'ra juan zan Ortuoste'taŕ Iñaki gixona.

—Egun batzuetan emen aurkitzen da Etxebaŕia'taŕ Kaŕane Baltzola'ko neskatila begikoa.

"LAUAXETA" JAUNARI.—Beste askoren artian, artu egixu neure zorijon-aguŕa be, Gatika'ko eŕijan egin entzuben omen -jai edeŕagatik. Olako jai bat ondo meresi dozu ta. Zorijonak be.

MAÑARIKO.

Uaŕa.—Poztuten naz osatu zarala jakitian. Zer ete-zeunkan nenguan. Zeulako idazle trebiak biaŕekiak doguz. Eta eskeŕik asko zeure zorijonakaŕik. Ekin zintzoro -zintzoro idazten, abeŕijaren onerako ixango dalako.—Lauaxeta.

BARRY DOCK'TIK

ITXASTAŔ EUZKOTAŔAI.—Safi entzuten dogu itxastaŕen aŕtian eurek ezin leikela ezer egin abeŕijaren alde, beti dabiltzazalako atzeŕijetatik iñoiz juan-barik Euzkadi'rantz eta ziñismen onegaz betetuta ezta be artzen ezeren ardurarik. Nire ustez eŕu andijan dagoz onelako ziñismendunak, abeŕijan egon edo ludi-ziaŕ ibili beti dago zer -egin biaŕezkua euzkotaŕ gustijantzat. Nik onei, abeŕtzale diran gustijai olan iŕaunduten dautset: ¿Ete dakixu euzkerea? ¿Bai? ba euzkerea badakixu, euzkeraz itz-egixu ontziko euzkeldun gustijai, mutil koskoŕ asko egoten dira baŕuban, iñoiz urten bakuak euren baseŕijetatik, lotsatuta euzkeraz itz-egiteko, oldozturik itxas-idijak (itxastaŕak onela deŕuten-dautsagu atzeŕi bateko biztanliak talda andijan egoten diran Bilbao'ko ontzijetan) baŕe-egingo dautsoela euren izketeari; mutil onek ikusten ba-dabe zubek, euren agintari zarienak, euzkera egiŕen dozubela lotsa-barik itz-egingo dabe geure ele maŕian. Au alde batetik; bestetik, idatzi egin biaŕ dozube noizik-noizera zuben itxas-ibilketatzaz edo ikusten dozubena egoten zarien kai batzubetan eta idazkijok bidaldu gure izpaŕingi edo aldizkingijetan, pozik aŕtuko dautzubez-ta. Asieran gatxa ixango da geyenantzat euzkera idaztija baña beriala ikusiko dozube atsegiñez, geruago eŕezago ta ariñago egiŕen dozubela; orduban zuben zaletasuna andijagua ixango da gure eliarentzat eta batzuk asten ba-gara euzkera idazten zabalduko dogu zaletasuna itxastaŕ gustijaren aŕtian noizik-noizera idatzi-ezkero itxas-gai edo geure bixijeratzaz.

¿Eztakizu euzkerea?, erosi egixuz elizti on bat eta euzkeldun idazti batzuk eta gitxi-gitxika, gogoz beterik eta oldozturik euzkotaŕ ona eztala euzkeldun ixateko lanik eztabena egiŕen, adiŕaldu sendo, orain ezer ez jakin-aŕen ikasiko dozu bijaŕko, jakingo dozu iñoŕ eztala jayo jakintsu eta lan bitaŕtez ikasi dabela gustija.

Orain beste gauzatxu bat; au geyago da ontziburuentzat iñarlari edo bulzkindarijantzat baño. Ibilten zarien atzeŕiko kayetan ezagututen emotia biztanliai guk abeŕi bat daukagula, orain buztaŕtuta dagona atzian eukiŕen dogun ikuŕinpian, gaŕantzi aundiko gauzea da, ¿zein da onetarako bidia? Bat, euzkotaŕ-ikuŕin bat ixatia zeben ontzijaren euŕian; au ikusirik iŕaunduko dautzube ez ŕkijanak zer edo nongo ikuŕiña dun; orduban erantzun lei, guk españaŕ ikuŕinpian ibili-aŕen daukagula geure abeŕija ondo ezaguna bere ele, abenda, ekandu ta oŕura gustijakaz baña eztauzkugula nabaŕiŕu españaŕak geuk eskubide osua euki aŕen geŕe azkatasunerako. Beste bidetxubat onetarako da, "Se prohibe la entrada" ipinten daben idazkunatan idaztia euzkeraz itz onen ikuŕa.

IBILKETAK.—Port Talbot'en aguŕtu doguz Bilbao'taŕ Julen eta Monasterio'taŕ Biŕoŕ, "Banderas" eta "Miguel" deritxon ontzijetako iñaŕlari bikañak eta Bermeo'ko Euzko-Gastediko bazkidiak, eta asko poztu gara eurek ikusiŕa osasunez beterik. Opa dautzubet, lagun maŕiak, zorijonak itxaso -ziaŕ eta arin juatia zuben txoko maŕiara, zuben sendija ta... (ba-dakixube zer esan guradoten) ikusteko. Aguŕ eta ondo ibili.

ITXASTAŔ.

¡Léase EUZKADI!

SE RECOMIENDA POR SI SOLO EL ALIMENTO INSUPERABLE

A L A R - O N E N A

Olo aŕautzagilientzat eta txitak azteko. Utsik ematen ez duten jatekuak: Aragi aŕain eta azuŕ-iriŕ "Alar Onena". Especialísimo para gallinas ponedoras y cría de pollitos. Resultados garantizados Harinas de carne, pescado y hueso "Alar Onena".

María J. Esnaola

Miracruz, 21 SAN SEBASTIAN Teléfono 12014

¡ALERTA! EXIGID SIEMPRE LA MARCA "ALAR ONENA"

Jesús Ostolaza 卐 **FABRICA DE INSIGNIAS DE ESMALTE FINO**

BERGARA **AZALIRARRI MIEZKO IKURRIÑEN OLEA**

El mejor jabón para el lavado de la ropa. Tiene abundante espuma y mucha duración.

"BILORE"

Zoñekoak garbitzeko jaboi-rik onena. Bitxa ugara dauka ta iraupen aundiagoa.

DOCTOR BENITO PETSCHEN
Partos. Enfermedades de la mujer
Rayos X. Diatermia.
Prim, 17, entlo. T 12.761 De 3 a 8
San Sebastián

ANGEL EIZAGUIRRE
CORAZON Y PULMONES
RAYOS X Y ULTRAVIOLETA
Alameda, 14. Teléfonos, 12.509 y 12.450
DONOSTIA

LUIS ZATARAIN
MEDICO-DENTISTA
Hernani, 2., 1º - DONOSTIA

Dr. Antonio Echeto
Enfermedades de la infancia
Prim, 19. :: San Sebastián

Hotel Jáuregui
CONFORT E HIGIENE
Florida 16 VITORIA Teléfono 1.620

PAELO MOLANO
De la clínica de San Antonio
Especial GARGANTA, NARIZ y OIDOS
Peñaflorida. 10. Teléfono. 14 168. Donostia.

"CAFES MAYA"
VENDIDOS EN LOS ESTABLECIMIENTOS
Sarasate, 15 IRUÑA

RELOJES DE TORRE
LECEA Y MURUA
VITORIA

Gran Garage Moderno
Reparaciones, suministros y accesorios
Calle Iparraguirre. Teléfono. 10-7-54
SAN SEBASTIAN

PONSOL, S. L.
Fundada en 1838
Sombreros y boinas
BARRICA, 4. DONOSTIA, 10.876

Para artículos de niños, corses y fajas a medida
"MERKIENA"
LEGAZPI, 1. -- DONOSTIA

Doctor. V. Loidi
OCULISTA
Avenida, 23. 2.º -- DONOSTIA.

Academia Vasca
De corte y confección. Primera y única que pos su sistema de enseñanza y método tan moderno y perfecto, pueden establecerse las discípulas con dos meses de aprendizaje, saliendo de esta Academia con su álbum y diploma correspondientes.
Clases económicas de dos a tres tarde.

Justa de Batarrieta
Fueros, 6, 3.º (esquina a Arenal). Bilbao

ASCENSORES MU
Zabaleta, 12y 14 Go
Tl. 12-76 - DONOSTIA Tl. 11.

VIUDA DE IGNACIO ZU
Topa blanca Novedades
Corsetería
Urbieta, 24. DONOSTIA.

Taller mecánico de carp y ebanistería
Bernardo Ece
Urbieta, 56. DONOSTIA.

ALMACEN DE VINOS,
José Manuel Alcorta
Servicio a domicilio
Aldamar, 4. Tel., 1-37-04

Imprenta Artículos d Larramendi Teléf DONO

Farmacia Carra
Easo, 8, y Príncipe, 48. T
DONOSTIA

A. BARANDIAR
Toda clase de herrami maquinaria para talle y obras
MAYOR, 5. -- DONO

Tejidos y Confec
OTAÑO HERMANOS
Sastrería y camis
San Juan, 11. T., 1-10-16

CASA AR
PARAGUERIA
Urbieta, 26 Teléfono
DONOSTIA

Hermoso mapa de
a cinco colores, 3.75 pesetas
B. Estornés. Diputación

Ferretería, cristalería
Echeverría Her
Calle de Urbieta, 10. T
DONOSTIA

A LOS Suscriptores de
Para toda clase de rec pueden dirigirse a Eu plaza Alameda,

SUCESORAS DE CASA SUSPERREGUI
Aurrentzako soñeko ta asko. Artille-ariak. Ostekogayak. Galtzerdia Pi y Margall. 27 (le 12.646 urrutizkiña. —